

DIASPORAKO EUSKAL-IDAZLEAK

Diasporako euskaldunik, Ameriketara nai edo zein atzerrietara joan eta atzerrian bizi eta lan egin dauan euskaldunik asko izan da aspaldiko gizaldietatik ona. Amerika, batez be Ego-Amerika, ango lurretan izen andia itxi daberen euskaldunen abizenez beterik dago. Eta euren artean euskaldun joan, eta euskera eta euskaldunak ezeguerazoteko, libururik idatzi dauan luma-langillerik bada.

Gagozan egunetan, badakit olango euskaldunak askoren artean sasi-euskalduntzat dagozala. Euskalerritik urrin alde eginez, atzerrian bizi eta atzerritarren erderatan idatziz, euren euskalduntasuna ukatu eta galdu egin ei dabe. Baiña bestera be esan daikegu: atzerria izan dala askotan gure erritarren euskalduntasuna eta euskal gogoa itzartu eta biztu dauana. Bere burua erdalerrian ikusita, orduan ikusi dau obeto euskaldun batek baiño geiagok bere nortasuna, orduan ikasi eta ikusi dau erri berezia eta izkuntza berezi baten jabea dala.

Atzerriak arakatzen joateko oitura oso antziñakoa izan dau Euskalerrriak, eta gure lege zarrak be ez eutsen bere semeai atzerritarako bidea artzea eragozten. Eta or zear zabaltzen ziran, batez be, itxasoko bideak erreztu ziranean, itxasoak austen, aize barrien billa, lur barriak ikusi eta ezagutu gureak eroanda, naiz bizibearrak derriortuta, batzuk itxas-gizon eta arrantzale, beste

batzuk merkatari edo mundu barrien aurkitzaille, edo erri barrien sortzaille, eta urrengo batzuk mixiolari, eta kristautasuna zabaltzen.

Ortik ez jako Euskalerniari ezelango kalterik etorri. Ez deutsegu olango gizonai errurik bota bear, gure erriaren galgarrri izan diralakoan. Eurak ez dabe euren erria ez saldu ez galdu. Eta gitxiago, euren erria aitzu barik, itzez eta egitez beronen alde eginala egin badabe. Gure nortasuna, gure izkuntza bera be, ilteko arriskura etorri bada, ez da izan atzerrira bidea artu eben euskaldunen erruz, etxean geldituen zabarkeriz eta euskal gogorrik ezaz baiño. Ezer galdu bada, emen galdu da, ez atzerrietan.

Arinkeria darion berbarik entzun da eta entzuten da atzerrietaratu eta erdaraz idatzi izan daben euskaldunak dirala-ta. Ameriketarako itxaso-bideak zabaldu barritan idatzi eban eta Erroman argitaratu Loiolako Inaziok bere gogo-jardunetarako liburu ederra. Zelan? Erderaz, atzerrian atzerriko izkuntzan, gizalegeak eskatzen dauanez Zer irabazi eikean, euskeraz idatzi baleu, atako gauza izan balitz? Ona bada, orain dala amabost bat urte edo, Durangon, Andra Mariko eleizpean, zer entzun geuntsan gure bertsolari ikasi ta eskola andidun bati, jarri eutsoen gaiak alan ekarrita:

San Inazio militarra zan,
eta arretaz aditu;
gugaitik eta errian alde
ez eban ezer sufritu.
Bera zala ta bera ez zala,
erdera gailen gelditu.
Obe genduen Ejerzioak
euskeraz egin balitu.

Bertsolari batek, ateraldi zorrotz usteko bat botatearren, ez dago txarto asmata. Baiña bertsoaren mamiari begitu ezkeru, arinkeri utsa besterik ez da. Inaziok ez eban bere liburua idatzi edozciñek irakurteko, ejerzizio emoilleentzat baiño, bakotxak entzuleen izkuntzan azaldu egian. Orregaitik atera eban latifñez

be, eleizgizon gaitzoren eskuetan ipinteko. Eta Euskalerrriak, arrezkero, beti izan dau Inazioten ejerzizioak, gogo-jardunak. euskeraz nok emon. Eta ori Inazioaren egunetakik eta Inazioaren cragitez, Inaziok berak agindu eta euskaldunen artera bialduta. Bat, gitxik dakiena: aita Otxoa, Erronkariko semea, Bizkaian zear be ibilli izan jakuna sermoegiñen eta ejerzizioak emoten. Baten batek esan lei Sermolari argia Erronkariar bai Bizkaiko euskaldunentzat! Baina jakin bei olangoak Aita Otxoaren euskere-a Oinatik euskeratik irazia zana, Oinatin Nausi eta irakasko luzero egon zan baten euskerea.

Orra, esango dot nik, orra Inazio deuna, Erronkatik urten barik, atzerrian bizi zala eta atzerrieko erderaz idazten ebal, Euskalerrrian euskaldun eginik, bere ejerzizioak euskeraz emoten. Ilda gero be, ez ete dau bardin jarraitu, batez be Aita Kardaberazek euskeraz idatzi zituen lau ejerzizio-liburuetatik, eta geurre egunerara arte guztian beste euskal-izlari eta euskal-idazlezen bitartez? Gure gizaldi onetara begiratze utsaz, ikus geinke Loiolako Santuaren liburu ospetsuak euskerara gitxienez iru itzulpen izan dituela (Olabide, Atutxa eta Egia) eta aren mamia ainbatek (Basabe, Manzisidor eta abarrek) emon deusela Euskaldunai euskeraz. Ez ete dau olan Inaziok euskerarentzat mesede andi-goa egin bertsolariaren irri-bertsotxoak baiño?

Inazioaren mende berekoa da Garibai. Eta ona Klaberia lapurditarrak bein arentzat bota eban eztenkadatxoa. Eta ez Garibarentzat bakarrik, bai Etxabe, Ameriketara euskaldunen eta euskeraren onez erderaz idatzi ebanarentzat be:

Burlatzen naiz Garibaiez
bai halaber Etxabez,
zeñak mintzatu baitire
erdaraz Eskaldunez.

Askotan egiten dan pekatua da bat goratzearren beste bat beeratzea. Eta ori egin dau Klaberia orrek. Joannes Etxeberri, euskeraz idatzi ebalako, zor jakon autorra egiteko, ez eukan ez Garibai ez Etxabe beeratu bearrik. Garibairen lana goragarria da edonondik begituta. Berari zor deusagu antxiña bateko euskal-

esaera zar eta eresi eder asko galdu ez izana. Etxabek Ameriket-
tan idatzi eban bere *Discursos* liburua euskaldunen maitez eta
euskeraren omenez, batez be erdaldunak argitzeko. Ezingo
dautsagu bere borondate ona eta geure esker ona ukatu. Klabe-
riaren bertsoak on eginez norbaitek idatzi izan dau Garibai eta
Loiola larregi dala Euskalerrian. Nik uste, tamalgarriago izan
dala euskerarentzat eta Euskalerrarentzat Klaberia asko izatea,
irrizko bertso orreik baiño besterik ezagutzen ez jakon ezkeru.
Loiolako santuari eta Garibairi askoz geiago zor deitso euskerak
lengo eta oraingo Klaberia guztiak baiño.

Bakotxari herea; naiz Erroman, naiz Valencian, naiz Ame-
riketan bizi zirala idatzi ebenai emon deioegun euren. Aitortu
deioegun euren lana, euren borondate ona eta geure zorra. Eu-
ren eskupekoa opatu eutsoen gure erriari. Emen gelditzen zira-
nen eskuetan itxi eben emengo arazoen goraberea, emengo po-
litika bidea, euskerearen bizitzca eta emengo dana. Geure esku-
etan itxi euskuen erri onen geroa eta euskerearen etorkizuna.
Emengo arazoak okertu badira, giro txarrik sortu izan bada
gure artean, geurea izan da errua, ez areina. Erdereari goiak ar-
tzen itxi badeutsagu, euskereari joaten itxi badeutsagu, ez deioe-
gun areiri kontua eskatu, geure zabarkeriari baiño. Etxabek be-
rak be ez eban gitxi egin guri geure nortasuna eta gainerako
ondasunak gogoratzeaz. Gure txaloak curai.

Azken urteetan euskaldunen diaspora

Eta, jakiña, txalo beroagoak jo bearrean gagoz azken urtee-
tako diasporako euskal-idazleai. Orain berrogeitamar urte eus-
kaldunak izan eben diaspora, erriz erri eta munduz mundu saka-
banatzea, lenago izaniko diaspora guztien azkarria izan zan. Pilla-
ka eta millaka zabaldu ziran munduko bazter guztietara. Batez
be, Europako eta Ameriketako aldeetara. Eta euren nortasuna,
eta euren euskal-gogoa aitzu eta galdu barik joiazan.

Lurrari inguruz inguru bira egin eutsan euskaldunak, Ur-
danetak, itxaso zabalean bein jaurtiriko «Aurrera!» oyua, itxaso-
ko olatuen artean galdu zana, geroko gizaldiak aitzu barik gogo-

ratzen dabe. Oraingoan euskerazko oymuts bat ez eze, euskerazko liburu osoak mundu guztian zear gordeko dabe euskaldunen izena eta euskal-izkuntzaren giartzuna. Euskalerrian bertan euskerea ito nai izan dabenean, gure izkuntzak mundu zabaleko ainbat lekutan aurkituko dau arnaslekua. Diaspora orretako euskaldunak eurrakaz daroe Euskalerria eta lekuan lekuan sortzen dabe euskereari bizirik eutsi eta iraun erazoteko aukera. Lenago be jakin eben gure Amerikanuak euskaldunak zirala zelan bat erakusten. Amazortzigarren gizaldian Peru aldean argitaraturiko bertso batzuk ezagutzen dira, eta joan dan gizaldian, emerretzi-koan, Iparragirrek, Otañok eta beste batzuk ango lurraldeetan be idatzi edo abestu eben zer edo zer. Baiña azken urteotan, ez bertso bat edo beste, euskera utsezko aldizkariak eta liburuak argitaratzeraiño erakutsi izan dabe Diasporako euskal-idazleak euren euskalduntasuna eta euskaldun irauteko gogo eta kemena, emen egin ezin zana, atzerrian non-nai egiñez. Eurak ez dira erbestera, antzinako asko lez, diru-utsaren usaiñean, aberasturik etxeratzeko amesak eginda.

Euskal-diasporako idazleak, beintzat, ez dabe Klaberia gaizki-esalerik izango. Lan izugarria eta guztiok eskertzekoa eta eder-eriztekoa egin dabe. Batzuk bakarrean eta ixillean ibilli dira, beste batzuk agiriago eta tuntun-ots andiagoa jota. Era guztietako liburu eta lanak urten dabe euren lumetatik, poema dala, nobela edo ipuinak dirala; batzuk, idazleak berak asmauta; beste batzuk erdal-izkuntzetatik euskerara itzulita. Asko aitatu barik geldituko ete diran bildurrez, aitatu daiguzan batzuk beintzat.

Chiletik, berengo errepublikatik asteko, Lontzi karmeldar-rrak bertsozko ipuin-liburu bi atera zituen an, eta beste lau geiago argitaratzeko prest itxi. Aita Agustin Atutxak, Karmeldarra au be, *Mugarra Begirana* poema gogorra idatzi eban an bertan, azkenez Caracas-en argitaratu ebana. Aita Mokoroa Kalasantzarrak izugarrizko lana asi eta burutzen diardu, euskal-esaera jatorrak batzen, iztegi antzean (Diccionario fraseológico); noz nork argitaratuko zain dauka lana, txukun amaituta.

Eta nok ez daki *Boletín Americano de Estudios Vascos* aldizka-

ritik egin izan dan lana? An bertan Txomin Jakakortajarena apaizak, besteak beste, Martin Fierro, ango poema ospetsuari ez deitso, ba, euskerazko bertso trinkotan ain zeatz eta ain jator berba egin erazo, eta Aita B. Larrakoetxeak ez dau, bada, lan arrigarria burutu, Shakespeare gorengo maillako antzerkigillearen antzerki guztiak euskerara itzuli eta gero argitaratu? An argitaratu izan diru iru euskal nobela gogoangarri, *Joan Inaxio, Bizia garratza, J. A. Irazustarenak, Colombian idatzi eta Argentinan argitaratuak, eta Ekaitzpean*, Eizagirre-tar Josebarena. Eta an sortu eta emen argitaratu dira, *Lardasketan eta Euskaldunak Argentinan*, J.R. Zubillagarenak. Peru aldetik ibillia da Aita Salvatore Mitxelena Unamunoren kritikako saio-liburu mardula idazten.

Venezuelan Ybinagabeitia bizkaitarrak patxada ederrean jardun dau ainbat euskal-lan ontzen eta Euskal-aldizkari barri bati bizia emoten (*Eman*) bera il zan arte. Martin Ugalde be Venezuelan saiatu izan da euskeraz eta erderaz idazten: euskeraz *Itzailleak* eta beste antzerki-lan bat. Venezuelan egin zituen Bixente Amezagak ainbat lan sakon, euskeraz eta erderaz. Euskeraz ez doguz aitzubearko *Hamlet*, Shakespearea, eta *Platero eta biok*, J. R. Jimenez-ena; biak euskerara Amezagak itzuli eta Ameriketan argitaratuak. Perutik eta S. Salvadorretik izana da Orixek, bere luma ederrari inoz bakean itxi barik bertsoz eta itz-lauz mistikako gaiak landu eta argitzen. Bai Orixek eta bai Oiarzabal apaizak, Zaitegi zuzendari ebela, Guatemala aldean, *Eusko-Gogoa* aldizkariaren inguruan, lanik txalogarriena egin eben, Euskalerriko giro txarrak bearturik atzerrietan ebiltzan euskal-idazleen indar geienak euskerearen aldera alkartu eta ekarten aleginduz. Zaitegiren *Eusko-Gogoak* ildo gogoangarria itxi dau azkenengo urteetako euskal-literaturan.

Eta ez daiguzan aitzu China eta Formosa aldetik jardun eben idazle bi: Aita Yurre kaputxinoa eta P. Etxebarria jesuita. Euren mixio-lanen artean ez dabe inondik inora euskeraz idaztea bazterturik euki. Ango mixio-lanetako barri emonez gainera Aita Yurrek liburu mardulik atera dau, Vatikanoko Kontzilioaren goraberan.

Euskaldunen diasporako Euskal-idazleak lan ederra, gizaldiz
gizaldi gogoratzekoa egin ebelakoan gagoz. Lan gogoangarria
eta biotz-biotzez eskertzekoa, eta erduetat ipintekoa gainera.
Egun illun baltzetan itzaropen-argia ixetu euskuen. Beioakie
guztiai lerro kaxkar oneitatik gure gorespen eta esker ona. Gure
gomuta berezi apartekoa zor deusegu.

L. Akesolo